

AZPEITIAN BIZI DIREN 80 URTETIK GORAKO ADINEKOEN INGURUKO IKERKETA

EGILEAK: Aitor Beloki Unanue eta Naroa Otaegi Aiertza

LAGUNTZAILEA: Mariarro Alberdi Sesma

KOORDINATZAILEA: Edurne Zubia Artabe

DATA: 2017ko apirila



AZPEITIKO UDALA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.	4
2. KONTZEPTU NAGUSIAK.	5
2.1. MENDEKOTASUNA.	5
2.2. PRESTAZIO EKONOMIKOAK.	7
3. HELBURUAK.	10
4. METODOLOGIA.	11
5. TESTUINGURUA.	12
6. DATUEN AZTERKETA	14
7. AZTERKETA KUANTITATIBOA.	19
7.1. INKESTEN EMAITZAK: INTERPRETAZIO KUANTITATIBOA.	20
8. AZTERKETA KUALITATIBOA.	36
9. ONDORIOAK.	41
9.1. HIPOTESIAK GOGORATZEA.	41
9.2. ONDORIO NAGUSIAK.	43

TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

TAULAK

1. TAULA: Azpemitiko biztanleriaren bilakaera 80 urtetik gorako pertsonetan.	12
2. TAULA: Azpemitiko biztanleriaren hazkundera 2006-2016 urte bitartean.	13
3. TAULA: Ohiko bizimoduko jarduera egiteko laguntza behar dutenak eta ez dutenak.	33
4. TAULA: Adinekoek ohiko bizimoduko jarduera egiteko jasotzen duten laguntza mota.	34

GRAFIKOAK

1. GRAFIKOA: Sexuaren arabera sailkapena.	21
2. GRAFIKOA: Adinaren arabera sailkapena.	22
3. GRAFIKOA: Egoera zibilaren arabera sailkapena.	22
4. GRAFIKOA: Norekin bizi diren.	23
5. GRAFIKOA: Gizarte zerbitzuetan inoiz izan diren ala ez.	24
6. GRAFIKOA: Prestazio ekonomikoaren inguruko ezagutza.	24
7. GRAFIKOA: Etxebizitzako diru-sarrerak kontuan hartuz, hil amaierara nola iristen diren.	25
8. GRAFIKOA: Emakume alargunak nola moldatzen diren hil amaierara iristeko.	26
9. GRAFIKOA: Eguneroko bizimoduko gastuei aurre egiteko zailtasunak.	27
10. GRAFIKOA: Adinekoek laguntza ekonomikorik ematen al dien familiakoei.	28
11. GRAFIKOA: Etxebizitza norberarena ala alokairukoa den.	29
12. GRAFIKOA: Etxebizitza mota.	29
13. GRAFIKOA: Etxebizitzaren zonaldea.	30
14. GRAFIKOA: Oztipo arkitektonikoak.	30
15. GRAFIKOA: Adinekoen osasuna.	31
16. GRAFIKOA: Eguneroko jarduerak egiteko gaitasuna.	32

1. SARRERA

Gizartea zahartzen ari da. Teknologiaren eta medikuntzaren aurrerapenen ondorioz, pertsonen bizi kalitateak nabarmen egin du hobera, eta, horrenbestez, pertsonen bizi itxaropena luzatzen ari da etengabe. Hori dela eta, adinekoen presentzia gero eta nabarmenagoa den fenomeno baten aurrean gaude. Urtetik urtera gorantz doa adinekoen kopurua; jendea urte luzez bizi da eta, horrek, erronka berrien aurrean jarri ditu administrazio eta eragile ezberdinak.

Adinekoen artean, bereziki azpimarratzekoa da azken urteetan 80 urtetik gorako pertsonen artean eman den bilakaera, adin tarte horretako hazkundera erritmo esanguratsuan ari baita aurrera egiten. Azpeitiko errealitatera jauzi eginez gero, 2006an 572 pertsona baziren 80 urtetik gora zituztenak, jakin da 10 urtean zifra hori 925 izatera igaro dela, abenduaren 31ko datuen arabera. Hau da, 2006an 80 urtetik gorako kopurua biztanleria osoaren (13.930) %4'11 bazen, 2016an %6'30 izatera igaro da (biztanleria osoa 14.666 da). Hamar urtean, beraz, %2'21eko hazkundera izan du biztanleria osoarekiko.

Errealitate horren aurrean, Baigera Jubilatuen Elkarteko bazkideek kezka bat adierazi zuten gai horren inguruan. Haien arabera, adinekoen artean pobrezia eta bakardadea dago edo gutxienez arrisku horiek nabaritu zituzten; halaber, uste dute adineko gehienek ez daukatela nahikoa informazio prestazio ekonomikoen inguruan eta ez dutela prestazio ekonomikorik jasotzen. Beraz, 80 urtetik gorako kolektiboan esku hartzeko beharra sentitu zuten. Hori horrela izanik, udalari eskatu zioten adineko horien inguruko ikerketa bat egitea, alderdi ekonomikoak, sozialak, kognitiboak eta fisikoak ardatz izanda.

Eskaera horri erantzunez, beraz, Azpeitiko Udalak herrian bizi diren 80 urtetik gorako adinekoen inguruko ikerketa bat egin du. Bertan, aztertu da ea adineko horien artean zenbatek jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak. Hortik abiatuta, prestazio ekonomikorik jasotzen ez dutenei horien inguruko informazioa eman zaie etxera eginiko bisitetan, eta, bide batez, bizikidetza ezaugarrien datuak bildu eta horren guztiaren inguruko ondorioak atera dira.

2. KONTZEPTU NAGUSIAK

80 urtetik gorako pertsonez hitz egitean, hainbat kontzepturen bueltan mintza gaitezke. Nolanahi ere, ikerketaren norabidea kontuan harturik, bi kontzeptu nagusiren inguruan hausnartzeko beharra nagusitu da: mendekotasunaren inguruan eta prestazio ekonomikoen inguruan. Biak ala biak hain kontzeptu konplexu bezain sakonak izanik, bakoitza bere aldetik aztertu da.

2.1. MENDEKOTASUNA

Adinekoen bizi itxaropena gorantza doa etengabe. Urtetik urtera, datuek erakusten dute adinekoak urte gehiagoz bizi direla, bai eta haien ezintasunak eta menpekotasunak ere erritmo berdintsuan ari direla ugaritzen. Horren ondorioz, 2007ko Urtarrilean, Espainiako Legebiltzarrak Abenduaren 14ko 39/2006 Legea onartu zuen, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Legearen erronka handienetako bat mendekotasun-egoeran dauden pertsonei laguntzea eta horien autonomia sustatzea da, herritar gisa dituzten eskubideez oso-osorik gozatu ahal izateko.

39/2006 legearen arabera, hiru prestazio mota aurki daitezke:

- 1) **Familia inguruneke zainketarako prestazio ekonomikoa**, mendekotasuna duen zaintzaile batek bere familia ingurunean zaintzeak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzeko.
- 2) **Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa**, mendekotasun handiko pertsonei autonomia handiagoa izaten lagunduko dien profesionala kontratatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko.
- 3) **Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa**, Eguneke zentroetako eta egoitza pribatuetako zerbitzuen gastuak ordaintzen laguntzeko.

Prestazio hauek jasotzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- ➔ Estatuko lurraldean gutxienez bost urtean bizitzea, eta horietatik bi behintzat eskaera aurkeztu aurreko biak izatea.
- ➔ Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroldatua izatea eta bertan bizitzea.
- ➔ Mendekotasuna duen pertsonatzat baloratua izatea. Balorazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten du. Eskaera, aldiz, bizi den herriko udaleko gizarte zerbitzuetan egin behar da.

Behin mendekotasuna baloratutakoan, mendekotasuna duten pertsonak hiru gradutan sailkatzen dira eta gradu bakoitzaren barnean bi maila aurkitzen dira, pertsonak duen autonomiaren eta behar dituen laguntzen intentsitatearen arabera.

- 1.GRADUA: Mendekotasun ertaina edo tartekoa: pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du, gutxienez egunean behin.
- 2.GRADUA: Mendekotasun larria: pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du, egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du etengabe zaintzaile baten presentzia behar.
- 3.GRADUA: Mendekotasun handia: pertsonak eguneroko ohiko ekintzak egiteko laguntza behar du behin baino gehiagotan eta pertsona baten laguntza ere behar du ezinbestean eta etengabe.

Hala ere, mendekotasun prestazioez gain, badaude bestelako prestazio ekonomikoak ere, jarraian ikusiko dugun moduan.

2.2. PRESTAZIO EKONOMIKOAK

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 legearen arabera, prestazio ekonomikoak dira une jakin batzuetan edo aldizka pertsonen nahiz bizikidetzak-unitateei ematen zaizkien diru kopuruak, baldin eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako 6. artikuluan definitutako funtsezko helburuak lortzera bideratuta badaude edo beste sistema eta politika publiko batzuenak ere badiren helburuak lortzen laguntzen badute. Ildo honi jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Azpeitiko Udalak eta Azpeitia Lantzen-ek hainbat prestazio ekonomiko eskaintzen dituzte.

1- Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoak

Foru Aldundiak eskaintzen dituen prestazioak hainbat motatakoak dira. Behar baten edo bestearen arabera, aldundiak aukera zabala dauka behar horiei erantzun bat emateko. Honakoak dira prestazioak: Kotizatu Gabeko Pentsioa, Gizarte Ongizateko Fondoa, Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea eta Mendekotasuna.

- **Kotizatu Gabeko Pentsioa (KGP/PNC)**

Kotizatu gabeko pensioa bizitzeko nahikoa baliabide ekonomikorik ez duten pertsona adindu edo desgaituentzako da. Bi pensio mota daude honen barnean: jubilazioagatik kotizatu gabeko pensioa eta elbarritasunagatik kotizatu gabeko pensioa.

- **Gizarte Ongizateko Fondoa (GOF/FBS)**

Aldizkako prestazio ekonomikoa da, gizarte zerbitzuen osagarria, adina edo ezintasuna dela eta oinarritzko beharrianak asetzeko lanik egin ezin eta diru sarrerarik lortu ezin duten pertsonen ematen zaiena. Bi pensio mota daude honen barnean: zahartasuneko eta ezintasuneko.

- **Minusbaliatuak Gizarteratzeko Legea (MGL/LISMI)**

Desgaitasuna duten pertsonen arazo eta beharrei erantzuna emango dien sistema eta eskubide sorta bat biltzen dituen legea da, beharrezko arreta espezializatuaz harago, gizartean lan, ikasketa eta aisialdi arloan integratzeko beharrezko neurriak hartzen dituen.

- **Mendekotasuna**

Aurrez adierazi bezala, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko oinarrizko baldintzak arautzen ditu. Honi loturiko prestazioak dira familia inguruneke zainketarako prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

2- Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoak

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen artean dago, besteak beste, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE).

- **Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)**

Oinarrizko premiei lotutako gastuei nahiz gizarteratze- edo laneratze-prozesuak dakartzan gastuei aurre egiteko behar adinako diru-sarrerak ez dituzten bizikidetza-unitateetako kideentzako aldian behingo eta jatorri ekonomikoko eskubide subjektibozko prestazioa da, eta Lanbidek kudeatzen du.

3- Azpeitiko Udalak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoak

Udalak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen artean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eta Udal Laguntzak ditugu.

- **Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL)**

Ezusteko gertaera batek edo aldizkako prestazio ekonomikoen ondoriozko baliabide ekonomiko urriek sortutako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzeko prestazio ekonomikoa da, premiazko gabezia egoerak saihesteko baliabide aringarri modura erabiltzen dena. Egoera horiek une jakin batean edo une desberdinetan gerta daitezke. Eusko Jaurlaritzaren eskumena bada ere, udalek kudeatzen duten prestazioa da.

- **Udal laguntzak**

Udal laguntzak etxeko alokairua ordaintzeko, etxebizitzaren hipotekarako, etxebizitzaren fidantzarako, etxeko mantentze gastuetarako eta oinarrizko behar larrietarako erabiltzen dira.

3. **HELBURUAK**

Helburu orokorra:

Azpeitian bizi diren 80 urtetik gorako adinekoen bizikidetza ezaugarriak aztertzea eta prestazio ekonomikoen berri ematea.

Helburu zehatzak:

- 80 urtetik gorako pertsonen artean prestazio ekonomikoak zenbatek jasotzen dituzten aztertzea.
- 80 urtetik gorako pertsonen prestazio ekonomikoen berri ematea.
- 80 urtetik gorako pertsonen prestazio ekonomikoen inguruan duten ezagutza aztertzea.
- 80 urtetik gorako pertsonen hil amaierara iristeko dituzten zailtasunak aztertzea.
- 80 urtetik gorako pertsonen autonomia maila ezagutzea.
- 80 urtetik gorako pertsonak egunerokotasunean nola moldatzen diren ikertzea.
 - Laguntzarik (formala zein informala) jasotzen duten aztertzea.
- 80 urtetik gorako pertsonen etxebizitza ezaugarriak aztertzea.
 - Etxebizitzaren azpiegiturak nola dauden ezagutzea.
 - Etxebizitza adinekoaren beharretara egokitzen den ikertzea.
 - Oztopo arkitektonikorik (barnekoak zein kanpokoak) badagoen aztertzea.

Hipotesiak:

- 80 urtetik gorako pertsonen gehiengoak ez du prestazio ekonomikorik jasotzen.
- 80 urtetik gorako pertsonen ez dute gizarte zerbitzuen jardueraren inguruko informaziorik.
- 80 urtetik gorako pertsonen zailtasunak dituzte gastu ekonomikoei aurre egiteko.
- 80 urtetik gorako pertsonen zailtasunak dituzte beren egunerokotasunean bakarrik moldatzeko.
- 80 urtetik gorako pertsonen etxebizitzak ez daude beren beharretara egokituak.

4. METODOLOGIA

Ikerketa honek hainbat norabide izan dituela esan daiteke:

Alde batetik, aztertu dena izan da ea 80 urtetik gora dituzten pertsonen artean zenbat diren prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenak eta zenbat prestaziorik jasotzen ez dutenak. Beste aldetik, prestazio ekonomikoak jasotzen ez dituzten horienganako hurbilpena egin da, horien inguruko informazioa emateko.

Horrez gain, pertsona horien bizikidetza ezaugarriak aztertu dira; hau da, elkarrizketatuen datu orokorrak jaso dira, gizarte zerbitzuei buruz duten ezagutza neurtu da, duten egoera ekonomikoa aztertu da, etxebizitzaren egokitasuna baloratu da, oztopo arkitektonikorik badagoen identifikatu da eta elkarrizketaturiko adinekoek egunerokotasunean daukaten autonomia maila neurtu da. Datu horiek eskuratzeko, etxeko bisitak egin dira eta 27 galderaz osaturiko galdetegi batez baliatu gara.

Horretarako, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dira. Metodologia kuantitatiboaren bidez, 80 urtetik gorako datuak eskuratu dira eta prestazio ekonomikoen inguruko sailkapenak egin dira, prestazio bakoitzaren inguruko datu zehatzak eskuratzeko. Era berean, etxez etxe eginiko bisitetan pasatako inkestaren bidez ere datu kuantitatiboak eskuratu dira. Beraz, metodologia honek datuak zenbaki bidez aztertzea ahalbidetu du.

Metodologia kualitatiboaren bidez, berriz, datu kuantitatiboez gain, elkarrizketatuekin egindako hizketaldietatik (eta behaketatik) ateratako balorazio subjektiboak eskuratu dira. Metodologia kualitatiboak, izan ere, elkarrizketatuen sentipenak, iritziak eta pentsaerak barnebiltzeko aukera eman du pertsonen arteko interakzioaren bidez, bai eta etxebizitza bakoitzeko ezaugarriak behatzeko eta ondorioak ateratzeko ere.

5. TESTUINGURUA

Datuen azterketaren parametroetan sartu aurretik, beharrezkoa da Azpeitiko biztanleriaren bilakaeraren inguruko xehetasun batzuk ematea. Horretarako, Azpeitiko biztanleria osoaren zein 80 urtetik gorako adinekoen azken hamar urteotako bilakaera aztertu da.

1. TAULA:

AZPEITIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 80 URTETIK GORAKO PERTSONETAN

URTEA	BIZTANLERIA OSOA	80TIK GORAKOAK	% (80+)
2006	13.930	572	%4'11
2007	14.054	621	%4'42
2008	14.157	629	%4'44
2009	14.375	666	%4'63
2010	14.305	691	%4'83
2011	14.351	702	%4'89
2012	14.506	734	%5'06
2013	14.509	772	%5'32
2014	14.580	820	%5'62
2015	14.675	855	%5'83
2016	14.666	925	%6'30

Iturria: INE

Taula horretan ikus daitekeenez, Azpeitiko biztanleriak etengabe egin du gora urtez urte (2010ean izan ezik). 80 urtetik gorakoetan ere, tendentzia bera eman da, baina datuak aipagarriagoak dira. Izan ere, 2006an 80 urtetik gorakoak biztanleria osoaren %4,11 baziren, 2016an %6,30 izatera iritsi dira. Hau da, 10 urteren buruan, 80 urtetik gorakoen portzentaia %2,21 hazi da biztanleria osoarekiko.

Datu horiez gain, beharrezkoa ikusten da biztanleriaren hazkundearen datuak erakustea ere.

2. TAULA:**AZPEITIKO BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA 2006-2016 URTE BITARTEAN**

HAZKUNDEA (2006-2016)	KOPURUA	%
Biztanleria osoaren hazkundera	736	%5,02
80 urtetik gorakoaren hazkundera	353	%38,16

Iturria: geuk eginga

Taula honek 2006tik 2016ra bitartean Azpeitiko biztanleriak izan duen hazkundera erakusten du. Biztanleria osoak 736 pertsonako hazkundera izan du; hau da, 10 urtean, biztanleria osoa %5,02 hazi da (eta horietatik %2,21 dira 80 urtetik gorakoak, ia erdia). 80 urtetik gorako pertsonen artean, berriz, 353 pertsonako hazkundera eman da: %38,16 hazi da. Beraz, argi eta garbi ikusten da biztanleria osoaren hazkundearekin konparatuz, 80 urtetik gorakoek izan duten hazkundera askoz ere esanguratsuagoa dela. Datu horiek erakusten dute kolektibo zehatz horretaz mintzo garenean fenomeno konplexu baten aurrean gaudela, Azpeitiko biztanleria erritmo oso azkarrean ari baita zahartzen, eta, horrek, ondorioz, etorkizun hurbilean erronka berriei aurre egin beharra eragingo duela.

6. DATUEN AZTERKETA

Azpeitian, beraz, 2016ko abendukaren 31ko datuen arabera, 80 urtetik gora dituzten 925 adineko daude. Horien artean, sailkapen ezberdinak egin dira, pertsona bakoitzak prestaziorik jasotzen al duen egiaztatzeko, eta, horrela bada, zer jasotzen duten jakiteko. Behin azterketa eginda, beraz, honako hauek dira eskuratu diren datuak:

Gizarte zerbitzuekiko ezagutzari dagokionez:

ADINEKOEK GIZARTE ZERBITZUEKIKO IZAN DUTEN GERTURAPENA	
80 urtetik gorakoak guztira	925
Noiz edo noiz gizarte zerbitzuetara hurbildu direnak	726
Inoiz gizarte zerbitzuetara hurbildu ez direnak	199

Gizarte zerbitzuekiko ezagutzari erreferentzia egitean, adierazi nahi dena da 726 pertsona horiek beraien bizitzako momenturen batean gizarte zerbitzuetara jo dutela; hau da, bertara gerturatzeko arrazoia bat hala bestea izanik ere, noiz edo noiz erabiltzaile izan direla. Horrek, alabaina, ez du ziurtatzen gerturatutako horiek guztiek prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenik, ezta horien inguruko informazioa daukatenik ere. Beraz, prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenak identifikatu ahal izateko, aztergai gehiago hartu dira kontuan, hala nola Foru Aldundiko prestazioak jasotzen dituztenak, dependentzia prestazioak jasotzen dituztenak, Diru sarrera Bermatzeko Errentaren onuradunak, Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren eta Udal Laguntzen onuradunak eta egoitzetan eta konbentuetan bizi direnak. Horiez gain, 2016an zehar hil direnak eta erroldatik baja eman dutenak ere sailkatu egin dira, erroldako multzotik kendu gabe zeudelako.

Era berean, kontuan hartu dira etxebizitza unitateko datuak ere prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenen kasuan, etxebizitza berean bizi diren kideak nahiz eta pertsonalki onuradunak ez izan, beren kideek jasotzen duten prestazioari buruzko informazioa badutelako, eta zentzu

horretan, prestazio ekonomikoekiko jakitun eta “onuraduntzat” jotzen ditugulako, modu zeharkakoan bada ere.

Noiz edo noiz gizarte zerbitzuetara gerturatu diren horietatik, beraz, honako datuak atera dira:

Foru aldundiko prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenak

FORU ALDUNDIKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ONURADUNAK	
KGP/PNC	22
GOF/FBS	2
MGL/LISMI	1
GUZTIRA: 25	

Dependentzia prestazioak jasotzen dituztenak

DEPENDENTZIA PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENAK		
PRESTAZIO MOTA	NORBANAKOA BAKARRIK	BIZIKIDETZA UNITATEA KONTUAN IZANDA
Familia Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa (PECE)	107	134
Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (PEAP)	78	85
GUZTIRA	185	219

Diru Sarrera Bermatzeko Errenta jasotzen dutenak

DSBE JASOTZEN DUTENAK
GUZTIRA:24

Gizarte Larrialdietarako laguntza eta Udal Laguntzak jasotzen dituztenak

GLL ETA UDAL LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTENAK
GUZTIRA: 12

Egoitzetan eta konbentuetan bizi direnak

EGOITZETAN ETA KONBENTUETAN BIZI DIRENAK	
EGOITZETAN	33
KONBENTUETAN	77
GUZTIRA: 110	

2016an zehar hil direnak

2016AN HILDAKOAK
GUZTIRA: 26

Erroldatik baja eman dutenak

BAJA EMAN DUTENAK
GUZTIRA: 1

Datu hauen guztien baturak (hil direnena eta baja eman duenarena izan ezik), hala ere, ez du prestazio ekonomikoen onuradunen emaitza zehatza isladatzen. Izan ere, zenbait norbanakok prestazio ekonomiko bat baino gehiago jasotzen du; beraz, jarraian datorren taularen bidez ikusiko dugu zein den prestazio ekonomikoen onuradunen kopuru erreala. Dependentsia prestazioak jasotzen dituztenak bere horretan mantendu ditugu, eta, horien artean, bestelako prestaziorik jasotzen duten aztertu da, horien desglosea eginez.

PRESTAZIO EKONOMIKOEN ONURADUNAK		
PRESTAZIOAK	ONURADUN GUZTIAK	DESGLOSEA EGINDA
Dependentsia prestazioak	219	219
Foru Aldundiko prestazioak	25	7
DSBE	24	18
GLL eta udal laguntzak	12	5
Egoitzetan eta konbentuetan	110	97
GUZTIRA	390	346

Beraz, guztira 346 adineko dira prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenak. Prestazio ekonomikorik jasotzen ez dutenak zenbat diren kalkulatzeko, noiz edo noiz etorri diren 726 horiei prestazio ekonomikoeno onuradunak, hil direnak eta baja eman dutenak kendu behar zaizkio:

Gizarte zerbitzuetara noiz edo noiz etorri direnak	726
Prestazio ekonomikoen onuradunak	346
Hil direnak	26
Baja eman dutenak	1
GUZTIRA: 353	

Beraz, printzipioz honako pertsona hauek dira inkesta egin behar zaienak eta prestazio ekonomikoen inguruan informatu behar zaienak:

IKERKETA EGINGO ZAIEN PERTSONAK	
GIZARTE ZERBITZUETARA INOIZ HURBILDU EZ DIRENAK	199
PRESTAZIO EKONOMIKORIK JASOTZEN EZ DUTENAK	353
GUZTIRA: 552	

7. AZTERKETA KUANTITATIBOA

Atal honetan, adinekoekin eginiko elkarrizketen bidez jasotako datuen interpretazio kuantitatiboa egin da. Aldez aurretik, esan beharra dago, ikerketaren lagina 552 pertsonakoa bazen ere ezin izan dela aurreikusitako kopuru horretara iritsi. Izan ere, batzuk hil egin dira, beste batzuk adinekoen egoitzetan daude, bakarren batzuk ingresatuta zeuden, beste batzuk ez dute parte hartu nahi izan ikerketan, zenbaitzuk bizilekuz aldatu dira, batzuek ez dute aterik ireki eta beste zenbait ikerketak iraun duen denboran gizarte zerbitzuetako erabiltzaile izaten hasi dira.

Zehatz-mehatz, honako hauek dira behin betiko datuak:

552 PERTSONETATIK....		
Inkesta egin zaienak	337	%61,05
Hil direnak	24	%4,35
Egoitzetan daudenak	33	%5,98
Gaixo edo ingresatuta daudenak	3	%0,54
Ez dutenak parte hartu nahi izan	64	%11,59
Bizilekuz aldatu direnak	15	%2,71
Atea ireki ez dutenak	52	%9,42
Gizarte Zerbitzuetan dabiltzanak	24	%4,35

Taulari erreparatuz, beraz, 337 pertsoneri egin zaie inkesta. Gainontzeko 215 horiei, berriz, aipaturiko arrazoiengatik ezin izan zaie elkarrizketarik egin, eta beharrezkoa ikusi dugu horietako batzuei aipamena egitea.

Egoitzetan daudenei erreferentzia eginez, hasieran egin genuen sailkapen orokorrean ezin izan genituen horietan zeuden 80 urtetik gorako guztiak identifikatu. Hori dela eta, jakin dugu lehengoz gain, beste 33 pertsona daudela adinekoen zentroetan bizitzen.

Hil direnen kasuan ere antzera gertatu da. Batzuk duela denbora bat hil ziren, baina erroldako datuak eguneratu gabe zeuden; hori dela eta, ezin genituen behin betiko datuak eskura izan. Beste batzuk, berriz, ikerketak iraun duen denboran hil dira.

Atea ireki ez dutenen kasuan, batzuekin telefonoz hitzartu genuen eguna eta ordua, baina ez ziguten aterik ireki. Gainontzekoekin, berriz, kontaktatzeko arazoak izan ditugu. Batzuek ez zuten telefonorik hartzen; beste batzuek, telefono zenbaki berria zeukaten; zenbaiten kasuan, telefonoak ez zuen tonurik ematen, eta besteetan errolda datuetan ez zegoen telefonoko zenbakirik. Ondorioz, erabaki genuen, haiekin hitzordurik hartu ezin genuenez, etxez etxe joatea eta txirrina jotzea. Hala, batzuk etxean aurkitzeko zortea izan dugu eta inkesta egin diegu, baina etxean ez zeudenekin ezin izan dugu ezer egin.

Azkenik, ikerketan parte hartu nahi izan ez dutenei dagokionez, esan beharra dago guztiei telefonoz deitu zaiela eta ikerketaren ildoak azaldu zaizkiela, baina hainbat arrazoiengatik ez dutela parte hartu nahi izan.

7.1. INKESTEN EMAITZAK: *INTERPRETAZIO KUANTITATIBOA*


ELKARRIZKETATUEN PERFLA

Guztira, 337 elkarrizketa egin dira. Horietatik, 255 (%75,7) adinekoei beraiei egin zaizkie, 49 (%14,5) elkarrizketetan ordezkariak hartu dute hitza, eta gainontzeko 34etan (%10,1) adinekoa eta ordezkaria egon dira. Ordezkariak egon diren kasuetan, seme-alabak %48,1 izan dira, eta senarra edo emaztea %27,3.

Ikerketaren asmoa adinekoen etxeetara gerturatzea bazen ere, elkarrizketen %4,7 telefonoz egin da eta %4,2a, berriz, Gizarte Zerbitzuetako bulegoan. Gainontzekoa, %91,1, elkarrizketatuen etxean egin da.

Adinekoen sexuari, adinari eta egoera zibilar dagokionez, honako hauek dira eskuratu diren datuak:

1. GRAFIKOA: Sexuaren arabera sailkapena




Iturria: geuk egina

Azpeitian bizi diren 80 urtetik gorako adinekoen sexu banaketari dagokionez, alde nabarmena dago: 925 adinekotik, 563 (%60,86) emakumeak dira eta 362 (%39,14), berriz, gizonak.

Alabaina, elkarriketatu direnen kasuan ez da horrelako alderik hauteman: izan ere, 337tik emakumeak 187 (%55,4) izan dira, eta gizonak 150 (%44,6).


2. GRAFIKOA: Adinaren araberako sailkapena



Iturria: geuk egina

Adinari erreparatuz gero, elkarriketaturiko gehienak 80-84 adin bitartean daude, %61,1 zehazki. Hala ere, beste zifrak ere esanguratsuak dira, 85-89 urte bitarteko adinekoak guztizkoaren %31,2 izatea eta 90etik gora %7,7 egoteak lotura handia baitauka bizi itxaropena luzatu izanarekin.


3. GRAFIKOA: Egoera zibilaren araberako sailkapena



Iturria: geuk egina

Egoera zibilaren datuek erakusten dute elkarriketatuen %42,4 ezkonduak direla, hau da, bikotearekin bizi direla. %9,8, berriz, ezkongabea da, eta soilik kasu bat ezagutu dugu banandu egin dena. Alargunak, berriz, 160 dira (%47,5). Alargunei dagokionez, emakumeak 122 dira (%75,25) eta gizonezkoak, berriz, 38 (%23,75).

4. GRAFIKOA: Norekin bizi diren




Iturria: geuk egina

Grafikoaren arabera, elkarriketatuen %42,6 bikotearekin bizi da. %27,1 bakarrik bizi da, eta horien artean 81 alargunak dira (%89,01). Seme-alabekin bizi direnak, berriz, elkarriketatuen %22 osatzen dute. 25 pertsona anai-arrebekin bizi dira. Azkenik, zaintzaileekin edo etxeko langileekin bizi direnen kopurua urria da, 337 adinekotik 10 (%3) bakarrik baitira.

PRESTAZIO ETA ZERBITZUAK

Ikerketan landu den beste ataletako bat prestazio eta zerbitzuei loturikoa izan da; hau da, hau da, gizarte zerbitzuen inguruan duten ezagutza eta jubilazio-pentsioen inguruko egoera islatzea.


5. GRAFIKOA: Gizarte zerbitzuetan inoiz izan diren ala ez



Iturria: geuk egina

Elkarrizketatuen %42,7 noiz edo noiz gizarte zerbitzuetan izan da eta %57,3a, berriz, ez da inoiz izan. Inoiz izan ez direnei dagokionez, honako arrazoiak eman dizkigute: batetik, badaude inoiz ez dutenak bertaratzeko beharrik izan. Bestetik, badaude laguntza beharra izan dutenak baina familia izan dena haien lehen laguntza iturria. Eta, azkenik, badira gizarte zerbitzuak pobreziaarekin edota bazterkeriarekin lotzen dutenik ere; horrek, ondorioz, oraindik ere gizarte zerbitzuekiko distantzia mantentzea eragiten du.

6. GRAFIKOA: Prestazio ekonomikoen inguruko ezagutza




Iturria: geuk egina

Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen inguruan galdetuta, elkarriketatuen gehiengoak adierazi du ez daukala informaziorik. Datuei erreparatuz, %58,8 da informaziorik ez duena. Informazio egokia eta nahikoa duela, bestalde, %13,9k soilik adierazi du. Datu hauek, bete-betean doaz arestian aipaturiko arrazoiei; hau da, prestazioen inguruko ezagutzarik ez izatea gizarte zerbitzuetara sekula gerturatu ez izanaren ondorio zuzena da.

Ikerketako hipotesi baten arabera, uste zen 80 urtetik gorako pertsonak ez dutela prestazio ekonomikorik jasotzen eta zailtasunak dituztela gastu ekonomikoari aurre egiteko. Hori egiaztatzeko, etxebizitzako bizikidetza unitateen diru-sarreraren eta hileko gastuen azterketa bat egin da. Hona hemen lortu diren emaitzak:

7. GRAFIKOA: Etxebizitzako diru-sarrerak kontuan hartuz, hil amaierara nola iristen diren




Iturria: geuk egina

Adinekoen zati esanguratsu batek, hau da, %69,7k, ondo moldatzen dela adierazi du, ez dutela arazorik; %24,9, aldiz, zailtasun batzuekin iristen da, eta %4,5, berriz, nahiko larri. Hilabete amaierara ondo iristen diren gehienak gizonetakoak edo senar-emazteak dira, non gizonaren jubilazio pentsioa ona denez ez duten zailtasunik eguneroko gastuei aurre egiteko.

Aldiz, aipatzekoa da emakume alargunen kasuan egoera ekonomikoa prekarioagoa dela. Jarraian datorren grafikoa da horren erakusgarri.


8. GRAFIKOA: Emakume alargunak nola moldatzen diren hil amaierara iristeko



Iturria: geuk egina

Datuen arabera, ikerketa egin zaien 337 adinekoetatik, 122 emakume alargunak dira (%36,2). Horietatik %55,7 ondo moldatzen da hileroko gastuei aurre egiteko. Izan ere, hauetariko askok beren pentsioa izateaz gain, alarguntasun pentsioa ere jasotzen dute. %32,8k, berriz, zailtasun batzuk izaten ditu hilabete amaierara iristeko. Horietatik gehienak alarguntasun pentsioa daukate, eta tarteka, laguntza eskatu behar izan die ingurukoei. Era berean, badago jasotzen duen pentsioarekin hilabete amaierara iritsi ezin duenik ere (%3,3).

9. GRAFIKOA: Eguneroko bizimoduko gastuei aurre egiteko zailtasunak



Iturria: geuk egina


Atal honekin amaitzeko, arazo ekonomikoen ondorioz herritarrek eguneroko bizimoduarekin loturik dauden ze arazori egin behar izan dieten aurre jakin nahi izan dugu. Goiko grafikoan ikus daitekeen moduan, inork ez du oinarrizko beharrianak asetzeko zailtasunik izaten, hau da, ez dute arazorik izaten elikadura gastuei aurre egiteko, jantziak erosteko zein botikak ordaintzeko. Etxeko mantenuko gastuei (ura, argia, gasa) aurre egiteko zailtasunik ere ez da identifikatu.

Arazorik nagusiena aisialdirako gastuetan atzeman da. Elkarriketatuen %8,6k aisialdiko gastuak murriztu dituela azaldu du. Bestalde, lagunei edo familiakoei laguntza eskatu beharra ere izan du %7,1k. Azpimarratzekoa da, era berean, adinekoen %21,36k arazo ekonomikoei aurre egiteko, modu nabarmenean baliatu behar izan dituztela aurrezki propioak.

Bestalde, aipagarria den beste datu batekin egin dugu topo. Elkarriketatutako adinekoen

%7,1ak lagunen edo familiakoen laguntza ekonomikoa behar dutela esan duten arren, bada laguntza hori kontrako norabidean ematen den kasurik ere. Hau da, adinekoen %6,5ek ekonomikoki laguntzen dio familiari: kasu guztietan seme-alabak dira laguntza horren onuradunak. Hona hemen hori adierazten duen grafikoa:

10. GRAFIKOA: Adinekoek laguntza ekonomikorik ematen al dien familiakoei




Iturria: geuk egina

ETXEBIZITZA

Alderdi honi dagokionez, etxebizitzaren kokapena eta ezaugarriak aztertu dira. Horretarako, galdetegiaz gain, behaketa metodoa ere erabili da. Honako hauek dira eskuratu ditugun datuak:


11. GRAFIKOA: Etxebizitza norberarena ala alokairukoa den



Iturria: geuk egina

Adinekoen gehiengoak, beraz, norberaren etxea du, ordaindutakoa. Alokairuan bizi direnen kopurua, berriz, oso urria da, %2.7 bakarrik.


12. GRAFIKOA: Etxebizitza mota



Iturria: geuk egina

Gehienak pisuetan bizi dira (%86,1). Baserrietan, berriz, %11,3 eta txaletetan %2,7.

13. GRAFIKOA: Etxebizitzaren zonaldea




Iturria: geuk egina

Etxebizitzaren zonaldeei dagokionean, berriz, %85,2 zonalde urbanoan bizi da. Zonalde semi-urbanoan bizi direnak %4,5 dira eta landa-eremuan bizi direnak, berriz, %10,4.

Etxebizitzaren ezaugarriei erreparatuz gero, oro har, etxeek bizigarritasun-baldintza onak dituzte: argitasuna, azpiegituren egoera eta instalazio elektrikoa onak dira. Oso kasu gutxitan identifikatu dira aipaturiko puntuei loturiko arazoak: instalazio elektrikoaren gabezia %2,7k du eta azpiegituren nola-halako egoera %1,5ak. Oztopo arkitektonikoei dagokionez, honako hau ikusi dugu:

14. GRAFIKOA: Oztopo arkitektonikoak




Iturria: geuk egina

Elkarriketatutako 337 adinekoetatik, beraz, %47,8k oztopo arkitektonikoak ditu bere etxebizitzan; %52,2k berriz, ez du halakorik. Oztopo nagusia bainugelaren egoera da, bere egokitasuna. %20,17k bainuontzia dauka dutxaren orde. Hala ere, oztopo honetaz hitz egiterakoan, elkarriketatuen gehiengoak adierazi du ez dela oztopo bat beraien egunerokotasunean; batzuei bainuontziak daukan koskak oztopoak eragiten dizkien arren, gehienek ondo moldatzen direla adierazi dute.

Beste oztopo esanguratsu bat igogailuaren egokitasuna izan da. Elkarriketatutakoen %18,99k ez dauka igogailurik. Kasu honetan ere, iritzi ezberdinak mahaigaineratu dira: badira igogailurik gabe ondo moldatzen diren adinekoak, baina baita bai ala bai igogailuaren beharra dutenak ere etxetik irten eta sartu ahal izateko.

ADINEKOEN OSASUNA ETA AUTONOMIA


Adinekoen osasun- eta autonomia mailari buruzko datuak lortzeko, nolako osasun maila daukaten eta egunerokotasunean eginerokotausneko jarduerak egiteko zer-nolako gaitasuna daukaten aztertu da.



Iturria: geuk egina

Grafikoari erreparatuz gero, elkarriketatuen %65,5ak osasun maila onaz gozatzen du. %27ak, ostera, nola-halako osasuna duela identifikatu da. Hauei buruz, esan beharra dago, etorkizun hurbil batean, pertsona hauen gaitasunak murrizteko eta mendekotasun egoerak ugaritzeko aukera handiak sor daitezkeela. Azkenik, %7,7k osasun eskasa duela atzeman da, hau da, mendekotasun egoeran daudela. Hauek, eguneroko eginkizunak egiteko, hirugarren baten beharra dute.

16. GRAFIKOA: Eguneroko jarduerak egiteko gaitasuna



Iturria: geuk egina

Eguneroko jarduerak egiteko gaitasunei dagokionez, honako alderdi hauek landu dira: etxeko lanak, erosketak, otorduen prestaketa eta higiene pertsonala, besteak beste. Zailtasun edo muga gehienak etxeko lanetan identifikatu dira, %44,2k adierazi baitu gaizki moldatzen dela eta hirugarren baten laguntza behar duela. Horietatik, 87 gizonak dira (%58,38) eta emakumeak, aldiz, 62 (%41,61).

Erosketen kasuan ere, %32 ez da ondo moldatzen, eta hauek ere beste norbaiten laguntza

behar dute; gehienetan, seme-alabena izaten da laguntza hori. Otorduen prestaketari dagokionez, berriz, %64,1ak esan du ondo moldatzen dela, eta, aldiz, %28,2 da gaizki moldatzen direnen portzentaia. Azkenik, higiene pertsonalari loturik, aipatzekoa da elkarriketatuen gehiengoa ondo moldatzen dela zeregin horretan: %83,4k esan du ez duela arazorik garbiketa pertsonala egiteko, eta soilik %6,8 da gaizki moldatzen dena. Kasu horretan, etxeko langilea edota familiako norbait izaten da dutxatzen laguntzen diona.

Etxeko lanei, erosketei eta otorduei dagokionez, aipatu beharrekoa da zeregin horietan gaizki moldatzen diren asko gizonezkoak direla, oro har; izan ere, senar-emazteak bizi diren etxebizitzetan emakumea da eginkizun horiek egiteaz arduratzen dena, nahiz eta bestelako kasurik ere ezagutu den.

ADINEKOEN ZAINATZA ETA ARRETA

Atal honetan, adinekoen zaintzaren eta arretaren inguruko azterketa egin da. Alde batetik, aztertu da ea ikerketa egin zaien adinekoak eguneroko jarduerak betetzeko laguntzarik behar al duten ala ez, baita jasotzen al duten ere. Bestaldetik, jasotzen duten laguntza nolakoa den aztertu da.

3.TAULA: Ohiko bizimoduko jarduerak egiteko laguntza behar dutenak eta ez dutenak

LAGUNTZA BEHAR BAI/EZ	LAGUNTZA JASO BAI/EZ	KOPURUA	%
Laguntza behar dute: 121	Jasotzen du	112	92,56
	Ez du jasotzen	9	7,44
Ez dute laguntzarik behar: 216	Jasotzen du	97	44,91
	Ez du jasotzen	119	55,09
GUZTIRA:		337	

Iturria: geuk egina

Taulan ikus daitekeenez, ikerketa egin zaien 337 adinekoetatik 121 (%35,91) dira laguntza behar dutenak eta 216 (%64,09) laguntza beharrik ez daukatenak. Laguntza behar dutenen kasuan, aipatzekoa da gehiengo handi bati behar hori asetzen zaiola, baina badagoela kopuru bat (%7,44) laguntza behar eta jasotzen ez duena ere. Bestalde, laguntzarik behar ez dutenen kasuan, aipagarria %44,91k jaso egiten duela. Horrek adierazten du adinekoak oro har ondo zainduta daudela, eta haien beharrei modu zuzen eta egokian erantzuten zaiela.

Adineko bakoitzak laguntza behar duen edo ez baloratzeko, kontuan izan da ea eguneroko zereginak bakarrik eta ongi egiten dituen edota familiaren zein beste norbaiten laguntza jasotzen duen, eta, kontuan izan da, era berean, elkarriketatuengandik jaso ditugun sentipenak ere; hau da, fisikoki, kognitiboki eta emozionalki nola dagoen.

4. TAULA: Adinekoek ohiko bizimoduko jarduerak egiteko jasotzen duten laguntza mota

LAGUNTZA	NOLAKOA	KOPURUA	%
Laguntza formala: 47 (%22,49)	Kontratatutako kanpoko pertsona batena (interna)	4	14,81
	Etxeko garbitzalea	43	91,49
Laguntza informala: 124 (%59,33)	Familia	123	99,19
	Bizilaguna	1	0,81
Laguntza formala eta informala: 38 (%18,18)	Familia, interna eta etxeko garbitzailea	38	18,18
GUZTIRA:		209	

Iturria: geuk egina

Laguntza motei buruz mintzatzerakoan, argi utzi beharrekoa da zer den laguntza formala eta zer laguntza informala. Laguntza formala zerbitzu instituzionala eta ordaindua da, menpekotasuna duten adinekoen zainketan oinarritzen dena. Laguntza informala, ostera,

mendekotasuna duen pertsonaren familia inguruneko zaintza da, sarritan ordainsaririk gabe egiten dena. Gaur egungo testuinguruan, oraindik ere familia da adinekoen laguntzaren eta ongizatearen hornitzaile nagusia; halaber, kasu askotan, zenbait adinekok daukaten laguntza mota bakarra ere bada.

Taulari erreparatuz gero ere, garbi ikusten da elkarriketatutako adineko gehienek jasotzen duten laguntza mota informala edo familiartekoa bakarrik dela (%59,33). Bizilagunen laguntza, berriz, oso urria da, kasu batean bakarrik identifikatu delako laguntza mota hau (%0,81). Laguntza formala bakarrik jasotzen dutenak %22,49 dira. Hauen artean, 4 adinekok daukate 24 orduko zaintza, eta gainontzekoek etxeko garbitzailea daukate. Azkenik, laguntza formala eta informala jasotzen dutenak %18,18 dira. Hauek, laguntza familiarraz gain, kontratatutako kanpoko pertsona bateana ere badaukate (etxeko langileena).

Etxeko langileei dagokionez, elkarriketatu ditugun 337 adinekoetatik 15ek bakarrik dute 24 orduko zaintza, guztizkoaren %4,45ak. Portzentaia horrek erakusten du babes familiarak gaur gaurkoz duen indarra.

8. AZTERKETA KUALITATIBOA

Azterketa kuantitatiboak zenbaki bidezko datuak eman dizkigun arren, beharrezkoa ikusi da, era berean, azterketa kualitatiboa ere egitea; hau da, adinekoekin eginiko elkarrizketek eragin dizkiguten pertzepzioak, sentrazioak eta irudipenak elkarbanatzea. Horretarako, hainbat alderdiri erreparatu diegu: egoera ekonomikoa, bakarrik bizi diren pertsonak eta hauek izan dezaketen bakardadea, lotura afektiboak, adinekoen autonomia, egunerokotasunean moldatzeko gaitasuna, etxebizitzaren ezaugarriak, osasun egoera eta prestazioekiko ezagutza.

Egoera ekonomikoari dagokionez, mota guztietako kasuekin egin dugu topo: pentsio onak dituztenekin, hilabete amaierara iristeko nola-hala moldatzen direnekin, bai eta hilabete amaierara iritsi ezin dutenekin ere. Gehiengoa zailtasunik gabe iristen bada ere, badira gastu ekonomikoei aurre egiteko arazoak dituztenak ere. Kasua horietan, familiaren edo inguruko laguntza izaten da lehen laguntza iturri nagusia. Emakume alargunen kasuan ere, gehienak ondo moldatzen dira: batzuek alarguntasun pentsioa jasotzeaz gain, norberaren jubilazio pentsioa ere badute, eta, beraz, ez dute arazorik gastuei aurre egiteko. Zailtasunak dituztenak, berriz, alarguntasun pentsioarekin bakarrik bizi direnak dira, beraien jubilazio pentsiorik ez dutenak. Hauek familiaren laguntza jasotzen dutela eta gehienak beren familiarekin (seme-alabekin eta horien familiarekin) bizi direla jakin dugu.

Nolanahi ere, konturatu gara aurrezkiek pisu handia dutela gai honi dagokionez. Izan ere, nahiz eta pentsioak kasu askotan ez izan oso handiak, askok eta askok aurrezkiak dituzte, eta pentsioarekin soilik pasa ezin dituzten hilabeteetan aurrezketara jotzen dute. Gainera, gehienek ezin dute udaleko zein foru aldundiko diru laguntzarik jaso, pentsio baxuak izan arren, dituzten aurrezkiekin legeak ezarritako baremoa gainditzen baitute. Beraz, aurrezkiei eta familiaren babesari esker egiten dute aurrera.

Horrez gain, konturatu gara adinekoen bizitzeko filosofia gugandik bestelakoa dela zeharo: bizitza osoan zehar aurrezten eta baliabide gutxirekin konformatzen ahalegindu dira, eta gaur egun ere halaxe egiten dute. Askok eta askok esan digute gehiegikeriatan gastatu gabe pasatzen dutela hilabetea, ekonomiari ongi begiratuta.

Bestalde, ikusi ditugu zenbait kasu non adinekoak diren seme-alabei ekonomikoki laguntzen dieten, lan-baldintza prekarioen eta krisiaren ondorioz. Hori dela eta, argi ikusi dugu familiak jarraitzen duela laguntza iturri nagusia izaten, eta bigarren mailako laguntza sareetara (sare instituzionaletara) ez dela hainbesteko maiztasunarekin jotzen. Izan ere, gizarte zerbitzuetan lantzen diren adinekoen kasu gehienak, mendekotasun egoerari lotutakoak izan ohi dira, oro har.

Bakarrik bizi diren pertsonei dagokionez, 91 (%27,1) dira bakarrik bizi direnak. Horietatik, gehienak alargunak dira, eta bakarren batzuk ezkongabeak. Hala ere, bakarrik bizi direnen kasuan ez dugu bakardade zantzu handirik aurkitu: konturatu gara gehienak autonomoak direla, pertsona aktiboak eta beren buruaren jabe, eta ondo moldatzen direla egunerokotasunean. Gainera, gehienek harreman ona daukate familiarekin. Nahiz eta bakarrik bizi, seme-alabek adinekoaren gainean egon ohi dira, bai etxera joanez, bai telefonoz deitu, eta alde horretatik, babes handia nabaritu dugu. Kognitiboki deterioratzen hasita dauden pertsonak, aldiz, familiarekin bizi dira, eta, beraz, ondo zainduta daude. Aipatu beharrekoa iruditu zaigu, nola ez, baserrietan ezagutu dugun errealitatea: joan baino lehen, aurreikusten genuen ziurrenik baserrietan egongo zela bakardade gehiena eta horietan aurkituko genituela esku hartu beharreko kasu gehienak, baina aurreikuspenek huts egin dute. Bisitek erakutsi digute baserrietan bizi diren adineko gehienek familiaren babes izugarria dutela: adinekoarekin bizi dira gehienak, edo bestela, ondoko baserrian. Hori dela eta, ez dugu isolaturiko kasurik atzeman, eta balorazio positiboa egin dugu horri dagokionez.

Lotura afektiboari dagokionez, arestian aipatutakoa berretsi beharrean gaude. Adinekoen gehiengoak harreman estua dauka bere senideekin: anai-arrebekin, seme-alabekin, bilobekin, ilobekin, koinata-koinatuekin... Halaber, autonomia aldetik arazorik ez duten adineko gehienek lagun artera jotzeko joera handia dute beren egunerokotasunean, bai ibiltzera joateko, baita jubilatuen elkartera joateko ere arratsalde pasa. Autonomia aldetik dependienteagoak direnen

kasuan, berriz, ikusi dugu familiaren babesak lehen mailakoa izaten jarraitzen duela. Kasu batzuetan zaintzaileekin bizi diren arren, egoera asko eta asko topatu ditugu non familia egiten den adinekoaren kargu, eta gizarte zerbitzuekiko distantziaren atzean arrazoi hori nagusitzen dela.

Adinekoen autonomiari dagokionez, denetarik ikusi dugu. Badira 80 urteren bueltan dabiltzanak eta beren autonomia ez dena erabatekoa eta, badira, era berean, 90 urtetik gora dituztenak, harrituta uzteko moduko sasoia erakutsi digutenak. Horregatik, adin bakoitzean autonomia maila zabalarekin egin dugu topo. Hala ere, uste baino inpresio hobea jaso dugula esan dezakegu: nahiz eta badauden 24 orduan norbaiten beharra duten pertsonak, oro har, adin tarte horretako jendea nahiko autonomoa dela konturatu gara, eta eguneroko bizimoduko eginkizun minimoetarako, behintzat, ez dutela beste inoren laguntzarik behar.

Egunerokotasunean moldatzeko gaitasunari dagokionez, autonomoak diren adinekoak ongi moldatzen dira eguneroko eginkizunetan, hala nola otorduak prestatzen, etxeko lanak eta erosketak egiten, higiene pertsonalean... Autonomia aldetik laguntza beharra dutenek, berriz, familiaren edo gertuko lagunen laguntza daukate, eta horrela moldatzen dira egunerokotasuneko jarduerak egiteko. Beste batzuek, berriz, lantzean behin garbitzailea kontratatzen dute etxeko garbiketara orokorrak egiteko, batik bat erortzeko arriskua dela-eta, saihestu behar dituzten lan horiek egiteko. Adinekoen aldetik jaso dugun eskaera nabarmenena etxeko garbiketarako egiteko norbait nahi izatea izan da. Izan ere, konturatu gara badagoela etapa bat non adinekoa autonomoa den, baina lantegi zehatz batzuetarako beste norbaiten beharra daukaten. Autonomoa izatetik menpekoa izatera igarotzeko jauzi horretan aurkitu dugu gabezia nabarmenena. Hor, etxeko garbitzaile bat p kontratatzea irtenbide egokia izan liteke, bai adinekoaren deskantsurako, eta nola ez, bere segurtasunerako.

Etxebizitzaren ezaugarriei dagokionez, orokorrean egoera onean daude etxeak. Hiruzpalau kasu kenduta (berogailurik eza edo argitasun gutxiko etxeak) ondo hornitutako etxeak daude, argitasun, azpiegitura eta instalazio elektriko egokiekin. Hori dela eta, adinekoen bizi kalitatea ezaugarri hauei dagokionez ona dela esan beharrean gaude.

Oztopo arkitektonikoei dagokionez, hiru dira bereziki aipatzekoak: bainugelaren

egokitasuna, ohe artikulatuak eta igogailua.

- ➔ Bainugelaren egokitasunari dagokionez, adineko pertsona gehienek egokituta dute; hau da, bainuontziaren ordeztutako dutxa dago etxe gehienetan. Hala ere, badago portzentaia esanguratsu bat dutxarik ez duena: elkarriketatutako guztien %20,17. adineko hauen gehiengoak esan digute ondo moldatzen direla bainuontziarekin; hau da, bainuontziko koska ez dela oztopo bat. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea adinekoek izaten dituzten intzidentzia eta erorketa asko bainugelan gertatzen direla, eta nahiz eta oraingoz ez hartu oztopotzat, baliteke etorkizun hurbilean arriskuak sor ditzakeen oztopo nabarmena izatera iristea.
- ➔ Ohe artikulatuei dagokionez, ez dira adineko asko ohe artikulatua dutenak, baina haren beharra dutenak ere oso gutxi identifikatu ditugu: orokorrean, daukaten ohearekin ondo moldatzen direla esan digute, eta ez dutela faltan botatzen artikulatua edukitzea. Horregatik, ohe artikulaturik ez dutenen eta momentuz behar ez dutenen kasuak ez ditugu oztopotzat hartu.
- ➔ Igogailuari dagokionez, aipamen berezi bat egin nahi genioke. Izan ere, datuek erakutsi digute elkarriketatuen %18,99k ez duela igogailurik bere etxebizitzan. Zenbaiten kasuan, igogailurik ez izatea jada oztopo bat da, kostatzen zaizkion eskailerak igotzea eta jaistea; are gehiago, erosketak tarteko direnean. Horrelako kasuetan, beste pertsona baten laguntza behar izaten dute ezinbestean. Beste batzuen kasuan, ikusi dugu igogailurik ez izatea oraindik ez dela oztopo bihurtu, zorionez osasunak lagundu egiten baitie. Kontuak kontu, argi daukagu gai oso korapilatsua dela. Izan ere, igogailua igogailurik ez izateak asko baldintza dezake adinekoen autonomia. Azken finean, adinekoen gehiengoari iritsiko zaio momentu bat non igogailua beharko duen bere egunerokotasunean etxetik irteteko eta sartzeko. Hori dela eta, igogailurik ez daukana mugatuta geldituko da modu autonomoan kalera joateko, erosketak egin eta etxera igotzeko eta abar; hau da, bizitza soziala izaten jarraitzeko. Hori dela eta, igogailuaren gaia esku hartu beharreko esparru bat dela uste dugu, eragin nabarmena daukana adinekoen egunerokotasunean, eta, nola ez, autonomian.

Osasun egoerari dagokionez, denetarik ikusi dugu. Badaude inongo osasun arazorik ez duten adinekoak, sekula botikarik hartu ez dutenak; eta badaude, era berean, medikazio asko hartzen dutenak eta gaixotasunak zein osasun arazoak sufritzen dituztenak ere. Hori dela eta, erabat aldatzen da beren bizimodua: osasun arazoak izatea muga bihurtzen da kasu askotan modu autonomoan bizi ahal izateko, bizi kalitate ona edukitzeko eta gizarte-bizitzan parte hartzeko (lagunekin elkartu, kafea hartu, kartetan jolastu, ibiltzera joan...).

Prestazioen inguruko ezagutzari dagokionez, adineko askok bisitak egin aurretik ez zeukaten prestazio ekonomikoen eta bestelako prestazioen inguruko ezagutzarik. Beste batzuek, nola-halako ideia bat zeukaten, eta gutxi batzuek, gizarte zerbitzuetan duela gutxi egon direnek eta ikerketak iraun duen denboran etorri direnek, berriz, bazeukaten nahikoa informazio. Beraz, informaziorik ez zutenei eta informazio nahikorik ez zutenei prestazio ekonomikoen eta bestelako prestazioen inguruko informazioa eman zaie etxeko bisitetan. Zenbait kasutan, elkarriketetan detektatu ditugun beharrak kontuan hartuz, behar horien arabera zerbitzuak eta prestazioak aholkatu dizkiegu, azken erabakia beti haien esku gelditu den arren.

Horri loturik, azpimarratzekoa da telelaguntza zerbitzuak azken hilabeteetan izan duen eskaeraren gorakada. Bakarrik bizi direnen edota eguneko denbora asko bakarrik pasatzen dutenen kasuan, etengabe gomendatu dugun zerbitzua izan da, beharrezkoa ikusten dugulako, batik bat, beraien segurtasunerako eta, nola ez, prebentziorako. Gainera, jendea kontziente da hortaz: nahiz eta osasun eta autonomia aldetik ondo egon, adinean aurrera joateak beti dakartza arrisku gehiago, eta horren aurrean, aukera egokia iruditu zaie telelaguntzarena.

9. ONDORIOAK

Azpeitian bizi diren 80 urtetik gorako adinekoen prestazioen inguruko ikerketa amaitu ostean, beharrezkoa ikusten da ondorio batzuekin ematea itxiera lanketa honi. Horretarako, lehenik eta behin ikerketan ezarri ziren hipotesiak bete diren edo ez aztertu da, eta, ondoren, ondorio nagusiak mahaigaineratu dira.

9.1. HIPOTESIA GOGORATZEA

Ikerketa lan honen hastapenetara bueltatuz, honako hauek dira zehaztu ziren hipotesiak:

- 80 urtetik gorako pertsonen gehiengoak ez du prestazio ekonomikorik jasotzen.
- 80 urtetik gorako pertsonak ez dute gizarte zerbitzuen jardueraren inguruko informaziorik.
- 80 urtetik gorako pertsonak zailtasunak dituzte gastu ekonomikoei aurre egiteko.
- 80 urtetik gorako pertsonak zailtasunak dituzte beren egunerokotasunean bakarrik moldatzeko.
- 80 urtetik gorako pertsonen etxebizitzak ez daude beren beharretara egokituak.

Aldez aurretik, aipatu beharra dago ikerketak bi fase izan dituela: lehena, inkestak egitera iritsi aurretik egin den datu bilketa guztia; eta, bigarrena, inkestak egin diren aldia. Beraz, bi faseak izan dira kontuan hipotesiak bete diren ala ez baloratzerakoan.

Lehenengo hipotesiari dagokionez, ikerketaren hastapenetan landu den kontua izan da hau. 80 urtetik gorako adinekoen zerrendak eskuratu eta bakoitzak jasotzen zituen prestazioak aztertu genituenean, konturatu ginen garai hartan zeuden 925 adinekotik 346 zirela prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak jasotzen zituztenak. Beraz, egia da gehiengoak ez duela prestazio ekonomikorik jasotzen. Kontu horren atzean, alabaina, azterketa kualitatiboan azaleratu dugun arrazoia dago: 80 urtetik gorako adineko hauen gehiengoak aurrezkiak ditu, non horrek (legeak

ezartzen dituen baremoen arabera) ezinezkoa egiten duen prestazio ekonomikoak jasotzeko aukera izatea. Era berean, konturatu gara elkarriketatutako ditugun zenbait adinekok, prestazio ekonomikoen orde, udaleko bestelako zerbitzuak jasotzen dituztela: Etxez Etxeko laguntza zerbitzua, eguneko zentroa eta laguntza teknikoak, besteak beste. Telelaguntza zerbitzua daukatenak ere, asko dira. Hauen kasuan, gainera, ikerketaren poderioz asko hazi da telelaguntza eskaera. Hori dela eta, egia da gehiengo batek ez duela prestazio ekonomikorik jasotzen, baina, aldiz, badirela beste zerbitzu batzuen onuradun.

Bigarren hipotesiak zioen 80 urtetik gorako pertsonak ez dutela gizarte zerbitzuen jardueraren inguruko informaziorik. Honi dagokionez, konturatu gara ez dela horrela. Izan ere, hasierako datuei lotuta, 925 adinekotik 726 noizbait gizarte zerbitzuetan izanak ziren. Horrek erakusten du, gutxienez, gizarte zerbitzuekiko ideia orokor bat izango dutela bertako funtzionamenduari buruz eta eskaintzen diren prestazio eta zerbitzuen inguruan. Aldiz, aipaturikoari buruzko ezagutzarik ez zuten horiei, beharrezko informazioa eman zaie. Beraz, hipotesi hau, ikerketaren bigarren faseari esker, ezeztatuta gelditu dela esan dezakegu.

Hirugarren hipotesiak zioen 80 urtetik gorako pertsonak zailtasunak dituztela gastu ekonomikoari aurre egiteko. Hipotesi honek ez du bete-betean bat egiten eskuratutako emaitzekin, elkarriketatutako gehiengoek adierazi baitute ez daukatela arazorik gastu ekonomikoari aurre egiteko, azterketa kuantitatiboan eta kualitatiboan landu diren emaitzetan ikus daitekeen moduan. Lehenengo fasean, datuen sailkapena egin zenean, berriz, prestazio ekonomikoak jasotzen zituztenak identifikatu ziren. Hauen kasuan, ekonomikoki laguntzak jasotzen dituzte, baina ezin dugu ziurtzat jo prestazio ekonomikoak jasotzeak gastu ekonomikoari aurre egiteko zailtasunik ez izatea esan nahi duenik.

Laugarren hipotesiak, berriz, honakoa zioen: 80 urtetik gorako pertsonak zailtasunak dituzte beren egunerokotasunean bakarrik moldatzeko. Emaitzek erakutsi digute elkarriketatutako diren adinekoen artean mota guztietako kasuekin egin dugula topo. Nahiz eta badagoen inoren laguntzarik behar ez duen jendea, konturatu gara adinekoen zati handi batek, nahiz eta osasun ona izan, mugak dituztela zenbait eginkizunetarako. Prestazio ekonomikoak jasotzen dituztenen eta elkarriketarik egin izan ezin zaien kasuan, berriz, ezin dugu jakin hipotesia betetzen den ala ez,

ez daukagulako haien inguruko inolako informaziorik.

Azkenik, bosgarren hipotesiak esaten zuen 80 urtetik gorako pertsonen etxebizitzak ez daudela haien beharretara egokituak. Elkarrizketak egin ez dizkiegunen kasuan ez dakigu errealitatea nolakoa den. Bestalde, elkarrizketatuen kasuan, hipotesi horrek ez du bat egiten errealitatean ikusi dugunarekin. Oro har, etxebizitzaren egoera ona da: argitasun, azpiegitura eta instalazio elektriko egokiak dituzte. Hala ere, aipatu beharra dago zenbait kasutan oztopo arkitektonikoak aurkitu ditugula, non adineko batzuentzat oztopo izan daitezkeen.

Beraz, aipaturiko hipotesiak neurri batean bat egiten dute ikerketaren emaitzekin, baina ez guztiz. Izan ere, hipotesien baieztapena aldatu egiten da elkarrizketatu diren adinekoei eta elkarrizketatu ez direnei dagokionez, baita elkarrizketak egin aurretik eta egin ondoren ere. Horrez gain, kontuan izan behar da elkarrizketatu bakoitza mundu bat dela eta hipotesien baieztapena ere aldatu egiten dela adineko batetik bestera.

9.2 ONDORIO NAGUSIAK

Ikerketak hainbat alderdi lantzeko aukera eman du. Alde batetik, 80 urtetik gorako datuak aztertu dira; beste aldetik, berriz, elkarrizketak egin dira, adinekoen bizi-baldintzak ezagutzeko. Bi alderdi hauek landu izanari esker, ikerketaren helburu espezifikoak bete dira, eta, ondorioz, baita helburu orokorra ere.

Datuen azterketari dagokionez, interesgarria izan da ikustea Azpeitian dagoen errealitatea; hau da, biztanleriak zer-nolako bilakaera izan duen azken 10 urteetan, eta, bereziki, 80 urtetik gorako adinekoen izan duten gorakada nabarmena. Horren harira lanketa sakon bat egin da adineko bakoitzak jasotzen dituen prestazio eta zerbitzuen inguruan. Horri esker, jakin da 925 pertsona horietatik 726 noiz edo noiz gizarte zerbitzuetan izanak direla eta horien artean 346 prestazio ekonomikoen onuradunak direla. Beraz, ikusi da 80 urtetik gorako kopuru esanguratsu

batek Azpeitiko gizarte zerbitzuek eskaintzen dituten laguntza ekonomikoak jasotzen dituztela eta, alderdi horri dagokionez, badaukatela udalaren babesa. Hasierako datu bilketa hori, beraz, ezinbestekoa izan da ikerketaren bigarren faseari ekiteko, hau da, prestazio ekonomikorik jasotzen ez dutenengana hurbiltzeko.

Ikerketaren bigarren fasea esperientzia erabat aberasgarria izan da, aukera eman duelako adinekoen etxeetara hurbiltzeko eta bizi duten errealitatea bertatik bertara ikusteko. Gainera, informazio trukea eman da; hau da, adinekoei buruzko informazioa jasotzeaz gain, gizarte zerbitzuei buruzko eta prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen inguruko informazioa eman zaie.

Horrez gain, inoiz gizarte zerbitzuetan egon gabeko jendea ezagutu dugu, eta horri esker, posible izan da, gutxienez, jende horri gizarte zerbitzuei buruzko ezagutza eta gertutasuna bermatzea. Adinekoekin zuzeneko hartu-emanean egoteari esker, gainera, haien beharrianak detektatu dira zenbait kasutan, eta hainbat esku hartze jarri dira martxan; seguraski, ikerketa hau egin ez balitz, adineko horien beharrianak bere horretan egongo ziren oraindik.

Bestalde, aipatzekoa da etxeetan jaso dugun tratua ona. Hitzordua hartu eta atea ireki diguten guztiek esku zabalik hartu gaituzte beren etxeetan. Horrek, are errazagoa egin du elkarren arteko hartu-emana sustatzea eta konfiantza- eta lasaitasun giroan egotea elkarriketak iraun duen denboran.

Alde negatibo bat aipatzearren, elkarriketarik egin nahi izan ez dutenen eta harremanetan jarri ezin izan garenen kasua azpimarratuko genuke. 64 pertsona izan dira parte hartu izan nahi ez dutenak, eta 52, berriz, telefonoko zenbaki okerrak medio, harremanetan jarri ezin izan ez garenak. Hori dela eta, kopuru esanguratsu baten bizimodua ezagutu gabe geratu gara, non seguraski, datu interesgarriak lortuko genituen elkarriketa horien bidez.

Oro har, beraz, ikerketaren balorazio positiboa egiten dugu. 80 urtetik gorako inguruko datu bilketa egiteko aukera eman du, haiengana gerturatzeko bidea ireki du, gizarte zerbitzuekiko distantziak murrizteko pausoak eman dira, eta, kasu askotan, esku hartzeak jarri dira martxan. Hori dela eta, erakutsi da udaletik badagoela adinekoen ongizatearenganako interesa, eta uste dugu,

interes hori helaraztea lortu dugula hein handi batean. Amaitzeko, eskerrak eman nahi genizkieke elkarriketetan parte hartu duten 337 adineko horiei, haien laguntzarik gabe ezinezkoa izango baitzen ikerketaren bigarren fasea aurrera eramatea.